

Panel de Hábitos Culturales - Observatorio Vasco de la Cultura

BOLETÍN 8

El Observatorio Vasco de la Cultura presenta los resultados más destacados de la octava oleada del **PANEL DE HÁBITOS CULTURALES**.

Se trata de una muestra fija de 204 personas que se caracterizan por superar un umbral mínimo de consumo cultural. La muestra está equilibrada por edad (entre 18 y 40 años), sexo y territorios históricos.

Su capacidad para explicar cómo y por qué se generan y evolucionan los hábitos culturales hacen del Panel una herramienta de especial interés. El análisis se centra en:

1. Descripción de las trayectorias de cambio: recuperación después de la Covid-19.
 - Énfasis especial en explorar hábitos digitales.
2. Tendencias post-Covid en los hábitos culturales.
3. Percepción subjetiva del cambio.

El Panel está ofreciendo en el contexto actual una mirada valiosa al impacto de la Covid-19 desde la perspectiva de la demanda y de los hábitos culturales. En este caso, permite empezar a vislumbrar como está siendo la recuperación.

** Los resultados detallados, así como comentarios más extensos y la metodología, se pueden consultar en el informe completo de Análisis de datos de la 8ª oleada.*

1. OBJETO DE ESTUDIO

El estudio de la participación cultural se realiza a partir de su conceptualización en 3 modos distintos:

- Primero, se conceptualiza un modo de **participación receptiva**, que concuerda con las actividades de acceso y consumo, con un rol pasivo de los públicos. Se operativiza por los niveles de asistencia y frecuencia de realización de distintas actividades.
- Segundo, se fundamenta la idea de un modo de participación distinto basado en la realización activa de **prácticas artísticas** a nivel amateur. La medida que se construye para el análisis toma en cuenta el número de prácticas artísticas amateur.



Kulturaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de la Cultura

Kultura Ohiturei Buruzko Panela - Kulturaren Euskal Behatokia

8. BULETINA

Kulturaren Euskal Behatokiak **KULTURA OHITUREI BURUZKO PANELAREN** zortzigarren jasoaldiko (sei hilean behingoa) datu nabarmenenak aurkezten ditu.

204 pertsonako lagin finkoa da, eta kultura-kontsumoko gutxieneko atalase bat gainditzen dutela da pertsona horien guztien ezaugarria. Adinaren (18 eta 40 urte bitarte), sexuaren eta lurralde historikoen arabera orekatuta dago lagina.

Panela oso tresna interesgarria da, kultura-ohiturak nola eta zergatik sortzen eta bilakatzen diren azaltzen baitu. Honako ardatz hauek ditu azterketak:

1. Aldaketa-ibilbideen deskribapena: ohituren berreskuratzeko-maila Covid-19aren ostean.
 - Ohitura digitalak esploratzearen garrantzia.
2. Covid-19aren osteko joerak kultura-ohituretan.
3. Aldaketaren pertzepzio subjektiboa.

Egungo testuinguruan, Covid-19aren inpaktuaren ikuspegi baliotsua eskaintzen ari da Panela, bai eskariaren bai kultura-ohituren ikuspegitik. Kasu honetan, berreskuratzeko-prozesua nolakoa den ikusten hasteko aukera ematen du.

** 8. jasoaldiko datuen azterketaren txosten osoan kontsulta daitezke datu zehatzak eta erabilitako metodologia, baita iruzkin luzeagoak ere.*

1. AZTERGAIA

Parte-hartze kulturalaren azterketaren oinarrian kulturaren kontzeptualizazioa dago, zeinak 3 modu ezberdin identifikatzen baititu:

- Lehenik, **parte-hartze harkorreko** modu bat kontzeptualizatzen da, sarbide-eta kontsumo-jarduerekin bat datorrena, zeinetan publikoek rol pasiboa duten. Jarduera desberdinen bertaratze-mailak eta gauzatze-maiztasunak kontuan hartuta operatibizatzen da.
- Bigarrenik, parte hartzeko modu desberdin baten ideia finkatzen da, maila amateurreko **arte-praktiken** gauzatze aktiboan oinarritua. Azterketarako eraikitzen den neurriak arte-praktika amateurren kopurua hartzen du kontuan.


- Finalmente, se atiende el modo de **participación digital** que, si bien puede ser receptiva o creativa, tiene interés por desenvolverse en un medio distinto al tradicional; el digital. Específicamente se operativiza una medida de participación digital receptiva, de consumo cultural en el medio digital.

El informe analiza el cambio que se produce en estos 3 modos de participación, profundizando en cada uno de ellos por razón de la Covid-19.

2. TRAYECTORIAS DE CAMBIO: IMPACTO DE LA COVID-19

Los datos evolutivos reflejan el impacto de la Covid-19 en la anterior oleada 7 y una muy ligera recuperación en la actual oleada 8.

Evolución de la participación cultural entre las oleadas 2 y 8 según modos y total



De la reciente evolución destaca:

- Una mejoría evidente de la participación receptiva.
- Un descenso claro de la participación creativa.


- Azkenik, **parte-hartze digitala** ere badagoela argudiatzen da. Harkorra edo sormenezkoa izan daiteke parte-hartze hori, eta interesgarria da ohiko ingurunetik kanpo garatzen delako: ingurune digitalean. Parte-hartze digital harkorreko neurri bat operatibizatzen da espezifiki, kultura-ingurune digitalean kontsumitzeari buruzkoa.

Parte hartzeko 3 modu horietan gertatzen den aldaketa aztertzen du txostenak, horietako bakoitzean Covid-19ak izandako eraginean sakonduz.

2. ALDAKETA-IBILBIDEA: COVID-19AREN INPAKTUA

Bilakaeraren datuek argi erakusten dute Covid-19ak 7. jasoaldian izan zuen inpaktua, eta oraingo 8. jasoaldi honetan izan den susperraldi txikia.

2. eta 8. jasoaldien arteko parte-hartze kulturalaren bilakaera, moduen arabera eta guztira




Azkenaldiko bilakaeratik hau nabarmendu behar da:

- Parte-hartze harkorrak nabarmen egin du hobera.
- Sormenezko parte-hartzeak behera egin du, argi eta garbi.

El cambio más notable se observa en la **participación receptiva**, que evoluciona positivamente pero se mantiene lejos de los niveles anteriores a la pandemia. La recuperación, por tanto, es solo parcial.

Se mantiene en gran medida la **participación digital**, que se ha convertido paulatinamente en un factor central de la participación cultural, pero por el contrario desciende la **participación creativa** a niveles incluso inferiores a los anteriores a la pandemia.

Trayectorias de cambio de la participación receptiva entre las oleadas 7 y 8 (%)



Atendiendo a la **participación receptiva**, se observa las tendencias principales tienen que ver con los aumentos, pero que el mantenimiento es muy importante. Así, se configura esta imagen de recuperación parcial.


La evolución difiere entre prácticas:

- En primer lugar, cabe destacar que la **lectura de libros** se ha mantenido desde la última oleada antes de la pandemia.
- En segundo lugar, las visitas a **exposiciones** y la asistencia a **bibliotecas** se sitúan a un 78% aproximadamente de su nivel prepandemia.
- En tercer lugar, la asistencia a **conciertos** y al **cine**, dos de las prácticas más extensas, se sitúan en un 70% aproximadamente de su nivel prepandemia.
- Finalmente, la asistencia a **espectáculos** es la práctica que menos ha recuperado sus niveles anteriores a la pandemia, con un 60% respecto a la oleada 6.

Aldaketarik agerikoena **parte-hartze harkorreen** ikus daiteke; izan ere, bilakaera ona izan du. Dena den, oraindik ere urrun dago pandemiaren aurreko mailatik. Horrenbestez, hein batean bakarrik berreskuratu da.

Parte-hartze digitalak bere horretan jarraitzen du neurri handi batean, eta pixkanaka-pixkanaka parte-hartze kulturalaren faktore nagusietako bat bilakatzen ari da. Aitzitik, **sormenezko parte-hartzeak** behera egin du, pandemiaren aurreko mailen azpira.

7. eta 8. jasoaldien arteko parte-hartze harkorreen aldaketa-ibilbideak (%)




Parte-hartze harkorreen kasuan, ikus daiteke joera nagusiak goranzkoak direla, baina mantentzeak ere garrantzia izan du. Horrek berretsi egiten du berreskurapena partziala izan dela.

Bilakaera desberdina izan da praktiken artean:

- Lehenik eta behin, azpimarratu behar da **liburuen irakurketa** mantendu egin dela pandemiaren aurreko azken jasoalditik.
- Bigarrenik, **erakusketetara** eta **liburutegietara** egindako bisitak, gutxi gorabehera, pandemia aurrekoen % 78 inguru dira.
- Hirugarrenik, **kontzertuetara** eta **zinemara** joatea, praktika ohikoenetako bi, % 70 inguruko mailan daude gutxi gorabehera, pandemia aurreko datuekin alderatuta.
- Azkenik, **ikuskitzetara** joatea da pandemiaren aurreko maila gutxien berreskuratu duen praktika, 6. jasoaldiarekin alderatuta (% 60).

Trayectorias de cambio de la participación creativa entre las oleadas 7 y 8 (%)




La **participación creativa** es el modo que peor evoluciona, y tras una intensificación en el primer período de la pandemia ahora se retrae a niveles incluso inferiores a los anteriores:


- Decece el número de personas que realizan **2 o más actividades**, que se reduce casi a la mitad pasando del 23,7% al 12,4%.
- El trasvase se materializa básicamente en:
 - Un crecimiento significativo del número de personas que no realizan **ninguna actividad**.
 - Un ligero crecimiento del número de personas que pasan a realizar **una sola actividad**.

La pérdida de practicantes se da especialmente entre hombres y menores de 30 años, mientras la pérdida de intensidad se da entre mujeres y mayores de 30 años.

Trayectorias de cambio de la participación digital entre las oleadas 7 y 8 (%)



7. eta 8. jasoaldien arteko sormenezko parte-hartzearen aldaketa-ibilbideak (%)




Sormenezko parte-hartzea izan da bilakaera okerrera izan duen parte hartzeko modua; hain zuzen, pandemiaren lehen zatian gora egin ostean, orain izugarri egin du behera, eta aurreko mailen azpitik geratu da.

- Behera egin du **2 jarduera edo gehiago** egiten dituzten pertsonen kopuruak; ia erdira jaitsi da (% 23,7tik % 12,4ra).
- Hauek dira aldaketa horien arrazoiak:
 - Nabarmen egin du gora **jarduerarik egiten ez** duten pertsonen kopuruak.
 - Pixka bat gora egin du **jarduera bakarra** egiten duten pertsonen kopuruak.

Jarduerarik egiten ez duten pertsonak 30 urtetik beherako gizonezkoak dira nagusiki; aldiz, intentsitatea 30 urtetik gorako emakumeen artean galdu da.

Parte-hartze digitalaren aldaketa-ibilbideak 7. eta 8. jasoaldien artean (%)



En última instancia, la **participación digital** retrocede solo muy ligeramente, mostrando básicamente un mantenimiento de su importancia. Ya des de varias oleadas anteriores a la pandemia la participación digital ha ido afianzando su centralidad en la participación cultural.

En relación con las distintas prácticas, se observa:

- Primero, un bloque de prácticas muy extendidas (ver **películas** o series y escuchar o descargar **música**) que se mantiene entre la oleada 6 (anterior) y a lo largo de las oleadas 7 (primera en pandemia) y 8 (actual). Hay que destacar que la **lectura digital** se ha mantenido fluctuante a lo largo de todo el periodo.
- Segundo, se observa un bloque de tres prácticas que experimentaron aumentos destacados (ver **conciertos**, ver **espectáculos** y ver **exposiciones**) pero ahora solo se mantienen parcialmente en el caso de espectáculos y exposiciones.

3. EVOLUCIÓN RECIENTE DEL ÁMBITO DIGITAL

Profundizando en el modo como se realizan algunas prácticas en el ámbito digital, el panel destaca:

- En el **audiovisual: preferencia casi absoluta por el streaming** (96,8%) y el pago de contenido (87,2%).
- En la **música: consolidación del streaming** en la música, pero especialmente **gratuito** (49,5%) y no tanto de pago (21,4%), así como el creciente peso que sigue acumulando el **móvil** como soporte de reproducción principal.
- En la **lectura**: mantenimiento del papel con porcentajes del soporte digital cercanos al 22%-23% inalterables a pesar de la pandemia.

En relación con los **espectáculos**, destaca que los motivos previos a la pandemia vuelven a ganar peso. Aun así, la pandemia, recogida en la categoría “Otros motivos”, sigue siendo el más relevante (puntuación de 2,8 en una escala de 1, nada importante, a 4, muy importante).

Los otros motivos relevantes guardan todos cierta relación entre ellos, y se refieren a las oportunidades que ofrece el formato online respecto al precio, el desplazamiento y el tiempo:

- El poderlo ver sin salir de casa (puntuación de 2,71).
- La lejanía geográfica respecto el lugar de representación del espectáculo (puntuación de 2,69).
- El precio (“era caro ir”, puntuación de 2,63).

Azkenik, **parte-hartze digitalak** behera egin du, baina apur bat besterik ez; beraz, agerian geratu da horren garrantzia mantendu egin dela. Pandemiaren aurreko zenbait jasoalditan ere ikusi zen parte-hartze digitalak garrantzia duela parte-hartze kulturalaren barruan, eta garrantzi hori finkatzen ari dela.

Praktika desberdinak aztertuta, hau ikusten da:

- Lehenik eta behin, oso zabaldua dagoen praktiken bloke bat (**filmak** edo telesailak ikustea eta **musika** entzutea edo deskargatzea) mantendu egin da 6. jasoaldian (pandemiaren aurrekoa), eta 7. eta 8. jasoaldietan zehar (pandemiako lehenengoa eta oraingoa, hurrenez hurren). Aipatzekoa da **irakurketa digitalak** gorabeherak izan dituela aldi osoan zehar.
- Bigarrenik, gorakada nabarmenak izan zituzten hiru praktiken multzo bat ikus daiteke: **kontzertuak** ikustea, **ikuskizunak** ikustea eta **erakusketak** ikustea. Alabaina, gorakada horiek partzialki bakarrik mantendu dira ikuskizunen eta erakusketen kasuan.

3. EREMU DIGITALAREN AZKENALDIKO BILAKAERA

Eremu digitaleko praktika batzuk gauzatzeko moduan sakonduz gero, Panelak honako hauek nabarmentzen ditu:

- **Ikus-entzunezkoen** arloan: **streaming-aren** (% 96,8) eta edukiengatik ordaintzearen (% 87,2) **lehenespena ia erabatekoa** da.
- **Musikaren** arloan: **streaming-a sendotu egin da musikan**, baina **bereziki doakoa** (% 49,5) eta ez hainbeste ordainpekoa (% 21,4); bestetik, **mugikorra gero eta pisu handiagoa hartzen ari da erreproduzio-euskarri nagusi gisa**.
- **Irakurketaren** arloan: papera irakurketa-euskarri gisa mantendu da, pandemia gorabehera, eta euskarri digitalen ehunekoak % 22-23 ingurukoak izan dira.


Ikuskizunei dagokienez, aipatzekoa da pandemiaren aurreko arrazoiak berriro ere pisua hartzen ari direla. Hala ere, pandemia, zeina “Beste arrazoi batzuk” kategorian sartuta dagoen, arrazoi nagusia da oraindik ere; hain zuzen, 2,8 puntu eskuratu ditu 1etik (batere garrantzitsua ez) 4rako (oso garrantzitsua) eskala batean.

Gainerako arrazoi nagusiek nolabaiteko lotura dute elkarren artean, eta online formatuak prezioari, joan-etorriari eta denborari dagokienez eskaintzen dituen aukerei buruzkoak dira:

- Etxetik irten gabe ikusi ahal izatea (2,71ko puntuazioa).
- Ikuskizuna hartzen den lekuarekiko urruntasun geografikoa (2,69ko puntuazioa).
- Prezioa («Garestia zen joatea», 2,63ko puntuazioa).


- El tiempo disponible (puntuación de 2,63).

Evolución de los canales de acceso a películas, series, vídeos... entre las oleadas 2 y 8 (%)




- Denbora erabilgarria (2,63ko puntuazioa).


Filmak, telesailak, bideoak, eta abar eskuratzeko kanalen bilakaera 2. eta 8. jasoaldien artean (%)




Evolución de la frecuencia de pago o suscripción para ver películas, series, vídeos... entre las oleadas 2 y 8 (%)




Filmak, telesailak, bideoak eta abar ikusteko ordainketa- edo harpidetza-maiztasunaren bilakaera 2. eta 8. jasoaldien artean (%)




Evolución del medio para escuchar música entre las oleadas 2 y 8 (%)




Musika entzuteko bitartekoaren bilakaera 2. eta 8. jasoaldien artean (%)




Evolución del soporte para escuchar música entre las oleadas 2 y 8 (%)




Musika entzuteko euskarriaren bilakaera 2. eta 8. jasoaldien artean (%)




Evolución del soporte papel o digital de la lectura entre las oleadas 2 y 8 (%)




Irakurtzeko paperezko euskarriaren eta euskarri digitalaren bilakaera 2. eta 8. jasoaldian artean (%)



Comparativa de los motivos de acceso a espectáculos en vivo online entre las oleadas pre-covid y las oleadas 7 y 8 (1= nada importante, 4 = muy importante)



Zuzeneko online ikuskizunetara sartzeko arrazoen konparazioa, Covidaren aurreko jasoaldien eta 7. eta 8. jasoaldien artean (1= batere garrantzitsua ez, 4 = oso garr.)



4. TENDENCIAS POST-COVID EN EL ÁMBITO DIGITAL


En concepto de prácticas digitales destaca que, de media, ha habido desde el inicio de la pandemia un 12,6% de nuevos practicantes y un 17,9% de personas que han intensificado sus prácticas.

Una lectura global destaca, como en la anterior oleada ya se observaba:

- El acceso a **plataformas de contenido cultural** de pago.
- El acceso a **actividades de aprendizaje informal**.

Pero, además, la inclusión de la opción de acceso a **podcasts** muestra que esta práctica ha irrumpido con mucho fuerza.

Realización de prácticas digitales durante la pandemia (%)



4. COVID-19AREN OSTEKO JOERAK KULTURA-OHITURETAN


Praktika digitalen arloan, aipatzekoa da, batez beste, parte-hartzaile berriek % 12,6ko gorakada izan dutela pandemiaren hasieratik eta % 17,9k beren praktikak areagotu dituztela.

Irakurketa orokorra eginez gero, hau da aipagarriena (aurreko jasoaldian bezala):

- Ordainketa bidezko **kultura-erakundeetarako** sarbidea.
- **Ikaskuntza informaleko jardueretarako** sarbidea.

Horrez gain, **podcast-ak** entzuteko aukera ere agertu da, eta argi ikusten da praktika hori indar handiz iritsi dela.

Praktika digitalen gauzatzea pandemian (%)




En la mayoría de las prácticas digitales se percibe que ya son o serán habituales en el futuro, excepto en dos, donde hay mayores dudas:

- El acceso mediante internet a obras en vivo.
- La realización de visitas virtuales a exposiciones, museos o sitios patrimoniales.

En este sentido, la realización de estas dos prácticas de forma digital se percibe en mayor grado como algo excepcional, con tendencia a volver a los cauces habituales, presenciales.

Opinión sobre tendencias en hábitos culturales a nivel de sociedad (%)




En una mirada global más allá de las prácticas digitales, se detectan tres prácticas en las que la creencia de que los cambios serán sobre todo a corto plazo difiere de forma más importante respecto de la creencia de que los cambios serán a largo plazo:

Praktika digital gehienetan hautematen da dagoeneko ohikoak direla –edo etorkizunean izango direla–, bitan izan ezik (zalantza gehiago sortzen dituzte):

- Zuzeneko obretarako sarbidea Internet bidez.
- Bisita birtualak erakusketa, museo edo ondare-guneetara.

Azken batean, bi praktika horiek modu digitalean egitea ohiz kanpokotzat jotzen da, eta, behin normaltasuna berreskuratuta, ohiko bideetara, hau da, aurrez aurreko jardueretara itzultzeko joera hautematen da.

Kultura-ohituretako joerei buruzko iritzia gizarte-arloan (%)




Praktika digitalaz harago doan ikuspegi orokorrago batetik begiratuta, aldaketak batez ere epe motzekoak izango diren ustearen eta aldaketak epe luzeakoak izango direnaren arteko aldea nabarmena da hiru jardueretan:

- Asistencia a eventos de artes en vivo.
- Asistencia al cine.
- Asistencia a museos.

En estos casos, la afectación de la Covid-19 se valora de manera clara como importante pero especialmente como temporal (a corto plazo), y la tendencia a la vuelta a los hábitos sería más fuerte que al mantenimiento de los cambios y la excepcionalidad ocasionados por la Covid-19.


Impacto de la Covid-19 en el cambio de hábitos en una escala del 1 (nada) al 4 (mucho) a corto y largo plazo



- Zuzeneko arte-ekitaldietara joatea.
- Zinemara joatea.
- Museoetara joatea.

Kasu horietan, Covid-19ak izandako eragina garrantzitsutzat jotzen da argi eta garbi, baina behin-behinekoa izango dela uste da (epe laburrekoa). Izan ere, ohiko ohituretara bueltatzeko joerak pandemiak eragindako aldaketek eta salbuespen-egorek baino pisu handiagoa izango dutela uste da.

Covid-19aren eragina ohitura-aldaketan, 1etik (ezer ez) 4ra (asko) bitarteko eskalan, epe laburrean eta luzean



5. PERCEPCIÓN SUBJETIVA DEL CAMBIO

La percepción subjetiva viene marcada por una creencia de descenso de la actividad cultural, a pesar de que los datos objetivos mostraban un ligero aumento y un peso relevante del mantenimiento.

En este sentido, se intuye que el contexto de pandemia, aunque menos restrictivo, sigue marcando una percepción de limitaciones:

Resumen de las trayectorias subjetivas (autopercebidas) de cambio entre oleadas (%)




En la presente oleada, el motivo "Otros" que recogía anteriormente el efecto de la pandemia, vuelve a colocarse en las últimas posiciones (aunque en comparación a la oleada 6 ya no es tan residual, con un 21% frente un 4,2%).

5. ALDAKETAREN PERTZEPZIO SUBJEKTIBOIA

Pertzepzio subjektiboa kultura-jarduerak behera egingo duelako usteak markatzen du, nahiz eta datu objektiboek igoera txiki bat egon dela eta mantentzeak pisu handia izan duela erakusten duten.

Ildo horretan, pandemiaren testuinguruak, dagoeneko hain murriztailea ez bada ere, nolabaiteko mugen pertzepzioa markatzen jarraitzen duela susmatzen da.

Jasoaldien arteko aldaketa-ibilbide subjektiboak, norberaren pertzepzioaren arabera (%)



Jasoaldi honetan, aurrekoetan pandemiaren eragina barne hartu duen "Beste batzuk" arrazoia azken postuetan kokatu da berriro. Hori bai, 6. jasoaldiarekin alderatuta, dagoeneko ez du hain garrantzi txikia (% 21 eta % 4,2, hurrenez hurren).

Motivos subjetivos de la evolución de la participación cultural. Oleadas 6 a 8

Motivo	Oleada 6	Oleada 7	Oleada 8	% recuperación cifra oleada 6
El tiempo de que dispongo	80%	36,4%	59%	73,8%
Distintas responsabilidades personales (cuidado familiar, estudios...)	62,6%	43,3%	56,4%	90,1%
Mis otros intereses en el tiempo libre (amistades, otras aficiones...)	66,3%	35,8%	61,5%	92,8%
Amistades con las que participar conjuntamente	51,1%	25,1%	37,4%	73,2%
Mi interés por la oferta cultural	50%	24,1%	35,4%	70,8%
La satisfacción con las actividades culturales	36,8%	12,8%	22,6%	61,4%
Las recomendaciones (de amistades, prensa, internet...)	41,1%	4,6%	26,2%	63,7%
La posibilidad de oferta cultural en mi entorno	50,5%	55,6%	53,8%	106,5%
La información sobre actividades culturales a mi alcance	42,1%	24,6%	40%	95,0%
El precio de las actividades	41,6%	16,6%	39,5%	95,0%
Abonos, descuentos, carnets culturales...	20,5%	11,8%	20%	97,6%
La posibilidad de hacer lo mismo por internet	11,1%	15,5%	12,3%	110,8%
Otros	4,2%	63,1%	21%	500,0%


En la última oleada anterior a la pandemia el **tiempo disponible** seguía siendo el motivo principal aducido por las personas participantes en el panel para explicar la evolución de su participación cultural. Ahora, en un contexto menos restrictivo que en la oleada 7, este motivo se sitúa con importancia similar a los otros intereses en el **tiempo libre** (61,5%), a las distintas **responsabilidades personales** (56,4%) y a la **posibilidad de oferta cultural en el entorno próximo** (53,8%).

Kultura parte-hartzearen bilakaeraren helburu subjektiboak. 6.-8. jasoaldiak

Arrazoa	6. jasoaldia	7. jasoaldia	8. jasoaldia	Berreskurapena ren %, 6. jasoaldiko zifra erreferentziatza t hartuta
Daukadan denbora	% 80	% 36,4	% 59	% 73,8
Zenbait erantzukizun pertsonal (familia barneko zaintza, ikasketak, eta abar)	% 62,6	% 43,3	% 56,4	% 90,1
Denbora librean ditudan beste interesak (lagunak, beste zenbait zaletasun...)	% 66,3	% 35,8	% 61,5	% 92,8
Parte-hartzea partekatze lagunak	% 51,1	% 25,1	% 37,4	% 73,2
Kultura-eskaintzarekiko dudana interesa	% 50	% 24,1	% 35,4	% 70,8
Kultura-jardueretikiko gogobetetasuna	% 36,8	% 12,8	% 22,6	% 61,4
Gomendioak (lagunak, prentsa, Internet, eta abar)	% 41,1	% 4,6	% 26,2	% 63,7
Nire inguruan dagoen kultura-eskaintza	% 50,5	% 55,6	% 53,8	% 106,5
Eskuragarri ditudan kultura-jardueri buruzko informazioa	% 42,1	% 24,6	% 40	% 95,0
Jardueren prezioa	% 41,6	% 16,6	% 39,5	% 95,0
Abonuak, deskontuak, kultura-txartelak...	% 20,5	% 11,8	% 20	% 97,6
Gauza bera Internet bidez egiteko aukera	% 11,1	% 15,5	% 12,3	% 110,8
Beste batzuk	% 4,2	% 63,1	% 21	% 500,0

Pandemiaren aurreko azken jasoaldian, **denbora erabilgarria** zen oraindik ere Paneleko parte-hartzaileek beren parte-hartze kulturalaren bilakaera azaltzeko emandako arrazoi nagusia. Orain, 7. jasoaldia egin zenean baino murrizketa gutxiago daudenez, arrazoi horrek **aisialdiko** beste interesen (% 61,5), **erantzukizun pertsonalen** (% 56,4) eta **inguruko kultura-eskaintzaren** (% 53,8) antzeko garrantzia du.


Motivos principales que los encuestados expresan según la trayectoria subjetiva de cambio (%)



Atendiendo al motivo principal que cada persona encuestada da según la trayectoria de cambio autopercebida, destaca que:

- La posibilidad **de oferta cultural en el entorno** ha sido un motivo relacionado con la **percepción de aumento**.
- El **tiempo disponible** es relevante para dar cuenta tanto del mantenimiento como de aumentos y descensos, siendo una razón con capacidad de ejercer efectos en distintas direcciones.
- Las **restricciones de la pandemia**, contenidas en la categoría “Otros”, ha sido un motivo relacionado con los descensos.
- Los **otros intereses distintos a la actividad cultural** destacan también entre las personas que han recalcado una trayectoria de **mantenimiento**.

Inkesta bete dutenek adierazten dituzten arrazoi nagusiak, beren aldaketa-ibilbide subjektiboaren arabera (%)



Inkestatutako pertsona bakoitzak norberak hautemandako aldaketa-ibilbidearen arabera emandako arrazoi nagusia kontuan hartuta, honako hau nabarmentzen da:

- **Ingurunean kultura-eskaintza** izateko aukera **hazkunde-pertzepzioarekin** lotutako arrazoi bat izan da.
- **Denbora erabilgarria** garrantzitsua da mantentzeen zein igoeren eta jaitsieren berri emateko, eta hainbat norabidetan ondorioak izateko gaitasuna du arrazoi horrek.
- **Pandemiaren murrizketak**, “Beste batzuk” kategorian jasotakoak, **jaitsierekin** lotutako arrazoi bat izan dira.
- **Kultura-jardueraz bestelako interesak** ere nabarmentzen dira **mantentze-ibilbide** bat azpimarratu dutenen artean.